



# Modaren etorkizu na

**kuna**  
bbk<sup>⊕</sup>



# Aurkibidea

- 01** Atarikoa
- 02** Identitatea eta moda
- 03** Klima-aldaketa eta moda
- 04** Nola jantziko gara etorkizunean?
- 05** Ohiturak eta moda jasangarrirako joerak
- 06** Industria eta moda
- 07** Nola arautu moda?
- 08** Etorkizuneko modaren giltzarriak
- 09** Fitxa teknikoa

# 01. Aurkezpena

Arropa giltzarria da gure gizartean eta kulturaren, babesturik eta eroso sentiarazteaz gain, adierazpide eta komunikabide ere badelako. Aukeratzen dugun arropak gure nortasuna, gure balioak, gizarte maila, baita gure lanbidea ere adieraz ditzake. Moda eta joerak etengabe aldatzen dira, baina arropak gure nortasuna adierazteko eta guri buruz zerbait esateko tresna gisa duen garrantziak luzaroan iraun du historian zehar. Era berean, modaren industria munduko industriarik handien eta indartsuenetakoa da: 2,5 bilioi dolar inguruko merkatuko balioa du eta barne-produktu gordin globalaren % 2 sortzen du gutxi gorabehera (Fashion United, 2021).

Hala ere, planetako sektore kutsatzaileenetako bat ere bada, Greenpeace-ren arabera (2021), batez ere moda azkarra edo *fast fashion* delakoa. Gainera, Naturarentzako Mundu Fondoaren (WWF) arabera, moda mota horrek mundu osoko hondakin-uren % 20 inguru eta karbono emisioen % 10 eragiten du (2020ko datuak).

Aurrekoa kontuan izanik, ikerketa honen helburua Euskal Herriko biztanleek modari eta ehungintzari buruz zer iritzia duten aztertzea da: Nola jantziko gara ingurumena kontuan hartuta? Aldatuko al ditugu gure kontsumo-ohiturak jantziei dagokienez? Etorkizunari begira, ikuspegi berritzaileagoa duen moda ereduaren bila gabiltza? Modaren industria jardunbide jasangarriago batzuetarantz jango al da?

Azterlan honen bidez, galdera horiei eta beste batzuei erantzun nahi zaie, euskal gizarteak modaren etorkizunean espero diren eraldaketei buruz duen iritzia, ezagutza maila eta ikuspuntuak aztertuz.






## 02. Identitatea eta moda

## Arropa gure identitatearen osagai al da?

*Gaur egun, zure iritziz, zenbat esaten du gure janzkerak garenari*



### biztanle guztien gaineko %




**Arropa gure identitatearen giltzarria da: gizartearen % 73,8k hala uste du.**

## Arropa gure identitatearen osagai izango al

*Eta 2050. urtean, zure iritziz, zenbat esango du garenari buruz?*



### biztanle guztien gaineko %




**Hala ere, erdiek soilik uste dute arropak etorkizunean jarraituko duela garrantzitsua izaten.**

## Nola aldatuko da gure janzkera?

*Zure ustez, 2050. urtean, orain baino gaizkiago, berdin ala*



### biztanle guztien gaineko %



**Gazteak optimistagoak dira gure janzkeraren inguruan:** 18-24 urte bitartekoen % 44,3k eta 25-34 urte bitartekoen


**3tik ia batek uste du 2050. urtean orain baino janzkera txarragoa izango dugula; % 19,3k, aldiz, orain baino hobeto jantziko garela uste du.**

## Zein da kolore erabiliena?

*Zure ustez, zein kolore nagusitzen da kalean ikusten duzun modan? Markatu gehienez ere bi erantzun.*



### biztanle guztien gaineko %




**Gehiengo handiaren arabera, gure gizartean, beltza da kolore nagusia;** jarraian, urdina eta zuria daude.




## Zein izango da kolore

*Eta etorkizuneko modan zein kolore nagusitzea gustatuko litzaizuke? Markatu gehienez ere bi erantzun.*



### biztanle guztien gaineko %




5etik bati baino gehiagori berdin bazaio ere, 10etik hiruk nahi dute etorkizuneko kolore erabiliena urdina izatea, eta gero, zuria eta beltza.

## Trajeek, gorbatek eta takoidun zapatek egoten

*Zure ustez, 2050ean, oraindik ere egongo al dira...? Markatu*



### biztanle guztien gaineko %



**64 urtetik gorakoen artean, gutxiagok uste dute elementu horiek etorkizunean erabiliko**

**Trajeak, gorbatak eta takoidun zapatak ez dira desagertuko 2050ean: hala uste dute Euskadiko biztanleen erdiek baino gehiagok.**

## biztanle guztien gaineko %

Gizonezkoen eta emakumezkoen sailak desagertzea, hau da, moda generorik gabekoa izatea.

### Generoa eta

Etorkizuneko modan gerta daitezkeen aldaketa hauetatik, zeintzuk gertatzea gustatuko litzaizuke?



Batez ere gazteak daude unisex modaren alde (18-24 urte bitartekoen % 46,9 eta 25-34 urte bitartekoen % 28,0)

% 19,0



**Gutxiengoa soilik** da emakumezkoen eta gizonezkoen sailak desagertzearen aldeko.


## Benetako armairua

Markatu zenbat jantzi eta oinetako daukazun orain zure armairuan eta zenbat edukitzea




## biztanle guztien gaineko %


Berokiak...




Alkandor a...




Kamisetak...




Gonak\*...




Prakak...



Soinekoak\*...



Oinetakoak...



■ Nahi duten jantzi kopuru BERA daukate

■ Nahi baino jantzi GEHIAGO daukate

■ Nahi baino jantzi GUTXIAGO daukate

Oro har, herritarrek daukaten jantzi kopuruarekin ados daudela diote. Hala ere, gutxi gorabehera % **30ek nahi baino oinetako, praka eta kamiseta gehiago ditu.**

\*erabiltzen dutenen / erabiliko luketenen gaineko ehunekoa (%)

A yellow cable-knit sweater is laid flat on a light grey surface. A small globe of the Earth is placed in the center of the sweater. Several blank, light brown paper price tags are attached to the sweater with white string. The entire scene is framed by a black border.


## 03. Klima-aldaketa eta moda

## Zer dakigu modaren industriarekin zerikusia duten

*Inoiz entzun edo irakurri al duzu modaren industriari buruzko adierazpen hauetako bat edo gehiago?*



## baietz esan duten biztanle guztien gaineko %




**Modaren industriari lotutako ingurumen arazo gehienak ezagunak dira herritarren artean.**

**Hala ere, soilik % 41,8k entzun edo irakurri du garbiketa bakoitzean milaka partikula mikroplastiko askatzen direla.**

## biztanle guztien gaineko %

*Nahikoa informazio daukat ingurumena hobekien zaintzen duen arropa aukeratzeko*



## Moda jasangarria eskuratzeko moduari buruzko

*Adierazi zenbateraino  
zauden ados ondoko  
baieztapenekin, modaren  
etorkizunak planteatzen  
dituen erronketako*




Hala eta guztiz ere, 3tik batek bakarrik uste du nahikoa informazio duela ingurumena hobekien errespetatzen duen arropa aukeratzeko.

## Zer jokabide-aldaketak lagun dezakete klima-krisia arintzen?

*Ondoko ekintzen artean, zure ustez, zeintzuk dira lagungarriak klima-krisia*



### biztanle guztien gaineko %



**Bigarren eskuko arroparen alde** (% 56,0), erabiltzen ez duten arropa saltzearen alde (% 52,4) eta arropa alokairuan hartzearen alde (% 13,0) dauden artean, emakume **gehiago dago**. **64 urtetik gorako**en artean, **pertsona asko ados daude behar den**

**Arroparen kontsumoa murrizteko, behar dena soilik erostea, klima-krisia arintzeko neurriarik onena da.** Gainera, erdiek baino gehiagok uste dute inpaktu positiboa izango luketela, baita ere, material iraunkorrez egindako arropa erosteak, arropa biltzeko edukiontzietan uzteak, zaintzeak eta konpontzeak.



A person with curly hair is wearing a white VR headset and a shiny, silver, quilted jacket. They are looking down and to the right. The background is a gradient of blue and purple. A black rectangular box is overlaid on the image, containing white text.

**04. Nola jantziko gara etorkizunean?**



## Arropa erostean eta janztean ingurumena errespetatuko dugu?

Zure ustez, 2050. urtean, posible al da aldaketa horiek gertatzea?

*Ingurumena gehiago errespetatuko dugu janztean*



### biztanle guztien gaineko %



■ Oso litekeena ■ Nahiko litekeena ■ Ia ezinezkoa ■ Ezinezkoa ■ Ez daki/Ez du erantzuten

**Ez dago adostasunik etorkizunean erosteko driver edo bultzagarri nagusia ingurumena izango denik:** inkestatuen % 45,6k uste du horrela; antzeko ehunekoak, aldiz, kontrako iritzia du.

Hala ere, 10 pertsonatik **6k uste dute ingurumena neurri handiagoan zainduz jantziko direla.**


## Arropa jasangarria erostea errazagoa izango al da

Zure ustez, 2050. urtean, posible al da aldaketa horiek gertatzea?



### biztanle guztien gaineko %


*Baliabide ekonomiko gutxiago duten herritarrek aukera gehiago izango dute ingurumena zaintzen duen arropa eskuratzeko*



Halaber, gizarteak ez du aho batez esan baliabide gutxien duten herritarrek etorkizunean arropa jasangarria eskuratzeko aukera gehiago izango dutenik.

biztanle guztien gaineko %

*Beharrezkoa delako eta ez ondo pasatzeko jantziko gara*



**Soilik beharrezkoa delako**

*Zure ustez, 2050. urtean, posible al da aldaketa horiek gertatzea?*




Soilik gutxiengo batek uste du balitekeela pertsonak beharrezkoa delako soilik jantziko direla.

**biztanle guztien gaineko %**

*Markek arropa gizartean dauden neurri guztietan eskaintzeko ahaleginak egin behar dituzte*

**Moda inklusiboago bat nahi al dugu?**

*Adierazi zenbateraino zauden ados ondoko baieztapenekin, modaren etorkizunak planteatzen dituen erronketako*



Herritarrentzat garrantzitsua da arropa markek ahaleginak egitea gizartean existitzen diren neurri guztiak eskaintzeko.

## Moda futurista bat nahi al dugu?

*Etorkizuneko modan gerta daitezkeen aldaketa hauetatik, zeintzuk gertatzea gustatuko litzaizuke?*



### biztanle guztien gaineko %



**18-24 urte bitarteko gazteak neurri handiagoan daude moda futuristaren alde: gehiagok erosiko lukete Metabertsoan (% 19,9), berehalako soinekoak sortzen dituzten sprayak erabiliko lituzkete**

**Erdiek baino gehiagok arropa etorkizunean biodegradagarria izatea nahi badute ere, euskal gizarteak ez da oso aldekoa moda futuristari dagokionez: % 10ek baino gutxiagok nahi du erosketak egitera mundu birtualera joan, ehun biziakin egindako arropa eduki edo arropa sprayak erabiliz sortu.**

## Zer nahi dugu etorkizuneko arropa-dendetan?

*Etorkizuneko arropa-denda dela eta, zer ezaugarri izatea gustatuko litzaizuke? Markatu behar diren*



### biztanle guztien gaineko %



**Emakumeen artean, irudian adituak direnen laguntza handiagoa (% 29,3) eta arropa alokairuan hartzeko guneak (% 19,6). 18-24 urte bitarteko gazteak dira formatu digitalen aldekoagoak: soilik linean erosteko guneak (% 17,8) eta**

**Erabiltzen ez den arropa utzi, trukatu edo saltzeko guneak egotea da etorkizuneko dendei eskatzen zaien ezaugarri nagusia.** Era berean, eskatzen da ingurumena errespetatzen ez duen arropa erraz identifikatu ahal izatea, **arropa konpontzeko zerbitzua egotea eta plastikorik ez erabiltzea.**

# 05. Ohiturak eta moda jasangarrirako joerak



MADE BY  
100% RECYCLING  
MATERIALS




## Behar baino arropa gehiago erosten

*Erosten duzun arropa kontuan izanik, zer*



## biztanle guztien gaineko %




**Herritarren erdiek uste dute arropa "modu arrazionalen" erosten dutela: % 49,9k behar duen arropa soilik erosten du, % 40,4k behar baino gehiago erosten badu ere.**

**кyпa**  
бвк 

## Ohiturak eta jokabide jasangarriagoak hartzeko asmoa

### biztanle guztien gaineko %



**Emakumeek eta 18-24 eta 25-34 urte bitarteko gazteek** joera handiagoa dute bigarren eskuko arropa erosteko (% 40,8, % 47,4 eta % 45,6) eta erabiltzen ez duten arropa saltzeko (% 44,9, % 50,8 eta % 55,5). Bestalde, gizonek behar duten arropa bakarrik erosteko

**Ohitura ohikoena erabiltzen ez diren jantziak arropa biltzeko edukiontzietan uztea da; gero, arropa zaindu eta konpontzea dago, baita beharrezkoa den arropa soilik erostea ere. Aitzitik, soilik % 3k alokatzen du arropa; gehienak ez**

**daude hori egiteko prest.**

**kuna**  
bbk 


## Etorkizunean, arropa zaborrera

Adierazi zenbateraino  
zauden ados ondoko  
baieztapenekin, modaren  
etorkizunak planteatzen  
dituen erronketako



## biztanle guztien gaineko %

2050ean, inork ez du arropa zaborrera botako



**Biztanleen % 45,3ren arabera, 2050ean jarraituko da arropa zaborrera botatzen.**


## Etorkizunean, josi egingo

Zure ustez, 2050. urtean,  
posible al da aldaketa  
horiek gertatzea?



### biztanle guztien gaineko %

#### *Inork ez du etxean josiko*




**Etxean jostea desagertuko den ohitura da herritarren % 58ren arabera.**

## Jarraituko al da beherapenak


*Zure ustez, 2050ean,  
oraindik ere egongo al  
dira...?*



### biztanle guztien gainerako %



Beherapenak



Kamiseta berriak euro baten  
truke

35-44 urte  
bitarteko  
helduek  
neurri

**Gehienek uste dute beherapenak egingo direla etorkizunean; antzeko ehunekoak, aldiz, uste du euro bateko kamisetak desagertuko direla.**

A background image of a textile factory. In the foreground, there are several large spools of thread in yellow, red, and white. The threads are being processed by a machine with blue and orange components. In the background, there are more machines and lights, creating a sense of a busy industrial environment.

## 06. Industria eta moda




## Modaren industriar jasangarritasunerak

Zure ustez, 2050. urtean, posible al da aldaketa horiek gertatzea?



### biztanle guztien gaineko %

Modaren industriak berrikuntzak egingo ditu, ingurumena neurri handiagoan zaintzen duten produktuak eskaintzeko



2050ean modaren industriak ingurumena neurri handiagoan zaintzen duten produktuak eskainiko dituela uste dute gehienek.


## Markek urtean zehar ateratzen dituzten bildumen kopurua

Adierazi zenbateraino zauden ados ondoko baieztapenekin, modaren etorkizunak planteatzen dituen erronketako



## biztanle guztien gaineko %

Moda markek urtean zehar hainbeste bilduma ateratzea arazoa da





**Pertsonen % 70ek baino gehiagok iritzi negatiboa du arropa-markek urtean ateratzen duten bilduma kopuru handiari buruz.**

## Euskadiko modaren industriaren

Adierazi zenbateraino zauden ados ondoko baieztapenekin, modaren etorkizuna



### biztanle guztien gaineko %



**Emakumeak optimistagoak dira:** % 40,9ren arabera, euskal moda erreferentea izango da.  
**18-24 eta 25-34 urte bitarteko gazteak ere ados daude:** % 57,8k eta % 50,9k, hurrenez hurren, ehungintza lantegiek Euskadiko marken arropa ekoiztu ahal izango dutela

Ez dago optimismo handirik Euskadiko modaren industriaren etorkizunari dagokionez: ia % 50ek uste du Euskadiko industria ez dela sektoreko erreferentea izango eta ez duela bertako marken arropa ekoizteko behar besteko ehungintza lantegirik.

## **Sastreak eta jostunak desagertuko al dira**


*Zure ustez, 2050ean, oraindik ere egongo al*

*Sastreak eta jostunak*



**% 50ek uste du etorkizunean oraindik ere egongo direla sastreak eta jostunak.**

**biztanle guztien gaineko %**




## **Ehungintzak sortzen duen aberastasunaren banaketa justuagoa**

*Adierazi zenbateraino  
zauden ados ondoko  
baieztapenekin,  
modaren etorkizuna*



### **biztanle guztien gaineko %**

*Euskadin, modaren industriak sortzen dituen irabaziak modu justuagoan banatu beharko  
lirateke*




**Euskadiko modaren industriak sortzen dituen irabazien banaketa justuagoaren alde daude herritarrak.**

A photograph of two women in a clothing store. They are standing behind a table covered with a peach-colored garment, possibly a dress or a long-sleeved top. The woman on the left is wearing a white shirt and a black vest, and she is looking down at the garment. The woman on the right is wearing a black blazer over a white top and is smiling. In the background, there is a rack of clothes and a mannequin wearing a white top and a brown skirt. The text "07. Nola arautu moda?" is overlaid in the center of the image.

## 07. Nola arautu moda?

## Etorkizuneko arroparen

Arropako etiketei dagokienez, zure arropako etiketan zer datu jartzea gustatuko litzaizuke? Markatu nahi dituzun



Etiketetan gehien eskatzen diren datuak arroparen osaketa, lan-baldintza duinetan egin dela bermatzen duen zigilua eta fabrikazio-herrialdea dira.


## Ez hain jasangarriagoa den arropari

Adierazi zenbateraino  
zauden ados ondoko  
baieztapenekin, modaren  
etorkizunak planteatzen  
dituen erronketako



## biztanle guztien gaineko %

*Ingurumena neurri txikiagoan babesten duen arropari zergak igo beharko lizkiokete*



**Ingurumena neurri txikiagoan babesten duen arropari zergak igotzearen alde daude herritarrak.**




## Ingurumena gehien kaltetzen duten ehunak debekatu

Zure ustez, 2050. urtean, posible al da aldaketa horiek gertatzea?



### biztanle guztien gaineko %

Gobernuek debekatuko dituzte ingurumena zaintzea neurri txikiagoan aintzat hartzen duten ehunak




**Eta erdiek baino gehiagok uste dute** 2050ean gobernuak debekatuko dituztela ingurumena gehien kaltetzen duten ehunak.

## biztanle guztien gaineko %


### Zer egin beharko litzateke nazioarteko *fast fashion* kateekin?

*Nazioarteko fast fashion kateen (erabili eta botatzeko arropa merkea, ingurumenaren babesa neurri txikian kontuan hartzen duena) etorkizunari buruzko baieztapen hauen artean, zeinekin identifikatzen*

- Orain bezala jarraitu beharko lukete
- Ingurumen-zaintzari egiten dioten kalteari buruzko publizitate ikusgarria jarri beharko lukete beren dendetan
- Desagertu beharko lirateke



**Gazteek neurri handiagoan eskatzen dute:**  
18-24 urte bitartekoen % 64,7k eta 25-34 urte



**Gehienek eskatzen dute *fast fashion* kateek ingurumenari egiten dizkioten kalteei buruzko publizitatea jar dezatela beren dendetan; 3tik batek horrelako kateak desagertu beharko liratekeela esan du.**


## Jantziak egiteko erabiltzen diren animalien haztegiak

Adierazi zenbateraino zauden ados ondoko baieztapenekin, modaren etorkizunak planteatzen dituen erronketako



### biztanle guztien gaineko %

Gobernuek debekatu beharko lituzkete jantziak egiteko erabiltzen diren animalien haztegiak



Jantzkiak egiteko erabiltzen diren animalien haztegiak debekatzearen aldeko joera zabaldua dago euskal gizartean.

A top-down view of a fashion design workspace. In the center, a hand uses a pencil to sketch a blue dress on a white paper. To the right, there are several color swatch cards with various shades of green, yellow, orange, red, and pink. In the foreground, there are more sketches of dresses, one in pink and one in purple. A metal mesh container with pencils is on the left, and a pair of scissors is visible in the bottom left corner. The background shows a wooden desk with various design materials.

# 08. Etorkizuneko modaren giltzarriak

#1

**Arropa identitatearen giltzarria bada ere** (% 73,8), euskal gizartearen arabera, etorkizunean ez da hain garrantzitsua izango.

Gainera, hirutik ia batek etorkizunean gaizkiago jantziko garela uste du.

#2

Gizartean gehien erabiltzen den kolorea beltza izan arren, % **30ek adierazi du etorkizuneko kolore nagusia urdina izatea nahi dutela.**

#3

**Inkestatutakoen erdiek baino gehiagok uste dute trajeak, gorbatak eta takoidun zapatak ez direla desagertuko 2050ean.**

#4

Soilik gutxiengo bat (% 20) dago emakumezkoen eta gizonezkoen sailak desagertzearen alde. 18-24 urte bitarteko gazteak neurri handiagoan daude generorik gabeko modaren alde.



*Identitatea eta moda*

#1

Herritar gehienek ezagutzen dituzte modaren industriarekin zerikusia duten ingurumen-arazoak. Hala ere, soilik % **34k uste du nahikoa informazioa duela ingurumena kaltetzen ez duen arropa hautatzeko.**

#2

Gizartearen arabera (% 72,3), arroparen kontsumoa murriztea eta beharrezkoa baino ez erostea da klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurririk eraginkorrena. Halaber, ia % 60 material iraunkorrekin egindako arropa erostearen, arropa biltzeko edukiontzietan uztearen eta janziak zaindu eta konpontzearen alde dago.



*Klima-aldaketa  
eta moda*

#1

Ia % 60k uste du ingurumenarekin konpromiso handiagoa izango dugula etorkizunean, arropa eskuratzeko orduan. Hala ere, jendea ez dago ados ea etorkizunean ingurumena babestea arropa erosteko arrazoi nagusia izango den ala ez: soilik % 45,6k uste du horrela.

#2

**Gizartea generorik gabeko modaren aldekoa ez bada ere, gehienek uste dute modak inklusiboagoa izan beharko lukeela: ia % 90k eskatzen du arropa gizartean dauden neurri guztietan egon dadila.**

#3

Etorkizuneko modari eskatu nahi dizkioten aldaketei dagokienez, gehienei ez zaie interesatzen moda **futurista**: % 10 baino gutxiago egongo litzateke ados mundu birtual batean erostearekin edota ehun biziak edo sprayak erabiliz sortutako arropa erabiltzearekin. Aitzitik, moda jasangarriago baten alde daude: % 50ek arropa biodegradagarria izatea eta % 40k baino gehiagok arropa gutxiago ekoiztea nahi du.

#4

Etorkizuneko dendei dagokienez, ia % **60k jada erabiltzen ez diren janzkiak utzi, trukatu edo saltzeko guneak egotea nahi luke**. Era berean, erdiak baino gehiago ados daude ingurumena errespetatzen ez duen arropa ondo identifikatu, **konponketa zerbitzua eskaini eta plastikoen erabilera saihestu behar dela**.




*Nola jantziko gara etorkizunean?*

**#1** **Herritarren erdiek behar duten arropa soilik erosten dute; % 40,4k, aldiz, behar baino gehiago erosten du.**

**#2** **Gehienek erabiltzen ez diren janziak arropa uzteko edukiontzietan uzteko, jantziak zaindu eta konpontzeko eta behar duten arropa soilik erosteko ohiturak dituzte.** Aitzitik, arropa alokairuan hartzea ez da oso ohikoa; izan ere, inkestatutakoen % 3 soilik egiten du, eta gehienak ez leudeke hori egiteko prest.

**#3** Biztanleen ia-ia erdiek uste dute 2050. urtean jarraituko dugula arropa zaborrera botatzen.

**#4** **% 58ren arabera, etxean jostea desagertu egingo da etorkizunean.** Bestalde, euskaldunen % **75ek uste du beherapenak ez direla desagertuko etorkizunean; antzeko ehunekoak uste du euro bateko kamisetak jada ez direla modaren industriako ohiko jardunbidea izango.**



*Ohiturak eta moda  
jasangarrirako  
joerak*



**#1 Erdiek baino ez dute uste sastreek eta jostunek jarraituko dutela sektorean garrantzitsuak izaten.**

Gehiengo handiaren arabera, beherapenak bezalako ohiko praktikak ez dira etorkizunean desagertuko; hala ere, % 70ek baino gehiagok iritzi negatiboa du markek urtean hainbeste bilduma ateratzeari buruz. Izan ere, gehienek espero dute modaren **industriak berrikuntzak egingo dituela ingurumena neurri handiagoan zaintzen duten produktuak ateratzeko; gainera, euro bateko kamisetak bezalako praktika ez-jasangarriak hemendik 2050. urtera** desagertuko direla **uste dute**.

**#3** Arroparen etiketetan egon beharko liratekeen informazioei dagokienez, honako hauek eskatzen dira batez ere: osaketa (% 72,8), lan-baldintza justuetan ekoiztu dela bermatzen duen ziurtagiria (% 72,4) eta zein herrialdetan egin den (% 60,4).

**#4** Modaren industriak eragiten dituen ingurumen-arazoak gizartean ezagunak direnez, **herritarrek, oro har, eskatzen dute moda azkarraren kateek beren dendetan kontsumitzaileen ezagutzera eman dezatela beren produktuek sortzen duten ingurumen-inpaktua; herritarren heren batek kate horiek desagertu beharko**



*Modaren industria:  
oraina eta  
etorkizuna*

#5

Euskadiko herritarrak ados daude modaren industriak sortzen dituen irabaziak modu justuagoan banatu behar direla. Gainera, oro har ados daude jasagarria ez den arroparen kasuan zergak igo beharko liratekeela.

#6

**Erdiek baino gehiagok uste dute gobernuek 2050ean debekatuko dituztela ingurumenari kalte handiena egiten dioten ehunak; 10etik 6 baino gehiago dago modaren industrian erabiltzen diren animalien haztegiak debekatzearen alde.**

#7

Azkenik, jarrera **pesimista nagusitzen da Euskadiko modaren industriaren etorkizunari dagokionez: biztanleriaren ia erdiak uste du eskualdea ez dela sektoreko erreferentea izango**



*Modaren industria:  
oraina eta  
etorkizuna*



# 09. Fitxa teknikoa

# Fitxa teknikoa



## UNIBERTSOA

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak, 18 urte edo gehiagoak



## LAGINAREN TAMAINA

1.000 inkesta  
Kuotak sexuaren, adinaren eta probintziaren arabera



## LANDA-LANA

2023/02/27tik 2023/03/21era  
arte



## PROZEDURA

Onlineko inkesta (CAWI)



## LAGINAREN ERROREA

$\pm 3,1$  puntu portzental, aintzat hartuta  $p=q=\% 50$  eta  $\% 95$ eko konfiantza maila, ausazko laginketa bakuna delakoan.



## GALDETEGIA

17 galdera + soziodemografikoak

